DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Gazteria
Agirre Miramón, 4 | Tel. 943481909 | gazteria@donostia.eus | www.donostia.eus
20002 Donostia / San Sebastián

Esp: 2021-BEST-00016

**GAZTEEN ANTZERKI TOPAKETA**
PARTE HARTZE OINARRIAK ETA DEIALDIA 2021

Udaleko Donostia Gazteriak, Donostia Kulturaren eta Kutxa Fundazioaren laguntzarekin, XXXII. Gazteen Antzerki Topaketa antolatu du, honako irizpideen arabera:

**1.- XEDEA**

Antzerki Topaketaren helburua gazteak antzerkiarekin harremanetan jartzea da, bai antzezle, bai sortzaile moduan (agertokien gainean edo atzean), eta baita ikusle moduan ere, era horretan antzerkira joateko ohitura bultzatuz eta kultur ekitaldi horiekin gozatzea sustatuz.

Beraz, hiru helburu ditu: ludikoa, pedagogikoa eta kultur ekintzak bultzatzea eta sustatzea.

Gazteen Antzerki Topaketak aukera paregabea eskaintzen du parte hartzaileek antzezlanak modu profesionalean gauzatzeko, hiriko agertoki ezagun eta egokietan.

Bestalde, Topaketak parte hartzaile gazteak motibatu nahi ditu, beraien sormen prozesuan aurrera egin dezaten, eta baita euren kultur ekoizpenaren zabalpena bultzatzeko ere.

**2.- TALDEAK ETA KATEGORIAK**

Topaketara aurkezten diren taldeak mota askotakoak direla eta bukaeran sari batzuk banatzen direla kontuan izanda, bi kategoria bereizi dira, taldekideen adinaren arabera:
- Junior kategoria: 14 eta 18 urte artekoak.
- Senior kategoria:18 eta 30 urte artekoak.

**3.- AGERTOKIAK**

Emanaldiak honako guneetan izango dira:

- Lugaritz Kultur Etxea - Imanol Larzabal
- Egia Kultur Etxea - Gazteszena
- Antzoki Zaharra
- Kontadores Gazte Zentroa
- Tabakalera: Kutxa Kultur Kluba

**MUESTRA DE TEATRO JOVEN**
BASES Y CONVOCATORIA DE PARTICIPACIÓN 2021

Donostia Gazteria del Ayuntamiento de San Sebastián, con la colaboración de Donostia Kultura y Kutxa Fundazioa, organiza la XXXII Muestra de Teatro Joven con arreglo a los siguientes criterios de organización:

**1.- OBJETO**

La Muestra de Teatro Joven tiene como finalidad poner en contacto a los/as jóvenes con el teatro tanto como creadores/as e interpretes (encima o detrás de los escenarios), como espectadores/as, fomentando así hábitos de asistencia y disfrute de prácticas culturales.

Se trata, por tanto, de un triple objetivo: lúdico, pedagógico y de promoción e iniciación cultural.

Con la puesta en marcha de la Muestra de Teatro Joven se pretende conseguir que los grupos de teatro amateur representen sus trabajos en entornos profesionales de la ciudad. Se trata de motivar a los/las jóvenes participantes para que avancen en el proceso de creación y difusión de sus producciones culturales, propiciando una experiencia positiva, gratificante y educativa.

**2.- GRUPOS Y CATEGORÍAS**

Dada la gran heterogeneidad de grupos y teniendo en cuenta que al final de la Muestra se premian algunas de las obras presentadas, se establecen dos categorías diferenciadas en función de las edades medias de los y las componentes de los grupos:
- Categoría Junior: Grupos cuyos componentes tengan entre 14 y 18 años.
- Categoría Senior: Grupos cuyos componentes tengan entre 18 y 30 años.

**3.- LUGAR DE LAS REPRESENTACIONES**

Las representaciones se llevarán a cabo en los diversos espacios:

- Centro Cultural Lugaritz- Imanol Larzabal
- Centro Cultural Egia- Gazteszena
- Teatro Principal
- Centro Joven Kontadores
- Tabakalera: Kutxa Kultur Kluba

12344n II

## 4.- DATAK

XXXII. Gazteen Antzerki Topaketa 2021eko urria eta azaroa bitartean egingo da.
Emanaldien egunak eta ordutegiak hautatutako taldeekin zehaztuko dira.

## 4.- FECHAS DE CELEBRACIÓN

La XXXII Muestra de Teatro Joven se desarrollará entre los meses de octubre y noviembre de 2021.
Los días y horarios de las representaciones se concretarán junto con los grupos seleccionados para participar en dicho evento.

## 5.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdian parte hartu ahal izateko, taldeek honako baldintzak bete beharko dituzte:
- Talde ez profesionala izatea.
- Partaideen adina 14 eta 30 urte artekoa izatea, biak barne. Salbuespenak arrazoitu egin beharko dira, kasuan-kasuan aztertuko dira, eta antolakuntzak hartuko du azken erabakia.
- Antzezlanak euskaraz zein gaztelaniaz izan daitezke.
- Antzezlanek ezin izango dute 90 minutu baino gehiago iraun eta, gutxienez, 30 minutukoak izan beharko dute. Salbuespenak arrazoitu egin beharko dira, kasuan-kasuan aztertuko dira, eta antolakuntzak hartuko du azken erabakia

Antolakuntzak aurkeztutako antzezlanak antzezlantzat jo beharko ditu, eta bestelako arte eszenikoetako lanak baztertu egingo dira.

Halaber, antzezlanak aretoetako ezaugarri teknikoetara egokitu beharko dira, eta muntaketa baldintzek egokiak izan beharko dute.

## 5.- CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN

Podrán participar en la convocatoria todos aquellos grupos que cumplan con las siguientes condiciones:
- Ser grupo no profesional.
- La edad de los/as participantes debe ser entre 14 y 30 años ambos incluidos. Las excepciones a esta regla deberán ser justificadas y se valorarán en cada caso, quedando en manos de la organización la última decisión.
- Las obras presentadas podrán ser tanto en euskera como en castellano.
- La duración de las obras no podrá superar los 90 minutos, ni ser inferior a 30 minutos. Las excepciones a esta regla deberán ser justificadas y se valorarán en cada caso, quedando en manos de la organización la última decisión.

Las obras presentadas deberán ser consideradas como obras de teatro propiamente dichas a juicio de la organización, quedando excluidas representaciones de otras artes escénicas.

Las obras tendrán que adaptarse a las características técnicas de la sala y las condiciones de montaje deben adecuarse a la misma.

## 6.- TALDEEN HAUTAKETA

XXXII. Gazteen Antzerki Topaketan, gehienez ere, **20** taldek parte har dezakete. Eskaera gehiago jasoz gero, ondorengo irizpideak ezarriko dira parte hartuko duten taldeak hautatzeko:

- Lehentasuna emango zaie Donostiako ikastetxe, unibertsitate, antzerki eskola eta talde independenteei (zentro batekin lotura ez dutenak); azken horien kasuan, taldeko partaideen %50ak, gutxienez, hirian erroldatuta egon beharko dute.

Aipatutako irizpideak ezarrita ere, 20 talde baino gehiago balira, antolakuntzak zozketa egingo luke.

## 6.- SELECCIÓN DE GRUPOS

El número máximo de grupos que participarán en la XXXII Muestra de Teatro Joven será de **20.** En el caso de que se reciba un número de solicitudes superior, se aplicarán los siguientes criterios para seleccionar a los grupos que participarán en la Muestra:

- Se dará prioridad a aquellos grupos que pertenezcan a Centros Escolares, Universidades, Escuelas de Teatro u otros centros con sede en Donostia, al igual que a aquellos grupos independientes (no adscritos a ningún centro), en este último caso el grupo tiene que contar como mínimo con un 50% de miembros empadronados en la ciudad.

En el caso de que aplicando los criterios citados, existan más de 20 grupos, la organización establecerá un sorteo entre ellos.

## 7.- EGITARAUA

Aurtengo topaketako parte hartzaileak 20 izango dira, gehienez ere. Egun bakoitzean talde batek baino gehiagok eskaini ahalko dute emanaldia, baina ordu desberdinetan. Erakundeak parte hartzaile kopurua handitzeko ahalmena izango du, leku erabilgarritasunaren arabera.

Talde bakoitzak, antolakuntzak azaldutako egutegia kontuan hartuz, gutxienez, 3 lehentasun adierazi beharko ditu, egunari eta lekuari dagokionez. Talde batzuen eta besteen interesak bat etorriz gero, zozketa egingo litzateke.

Izen emateko epea amaitutakoan, 2021eko irailaren 15ean, antolatzaileek programazio proposamen bat egingo dute, taldeek aurkeztutako lehentasunen arabera.

Antolatzaileek emanaldien egitaraua eta kartela argitaratuko dituzte, eta hedabideetan 2021eko XXXII. Gazteen Antzerki Topaketaren programa osoa zabalduko dute. Talde bakoitzak bere egitaraua edo publizitatea diseinatu nahiko balu, antolakuntzak emandako eredua erabili beharko luke edota ondorengo informazioa adierazi beharko luke, bai euskaraz, bai gaztelaniaz: *XXXII. Gazteen Antzerki Topaketa // XXXII. Muestra de teatro Joven eta antolatzailearen zein laguntzaileen logoekin edo aukera moduan XXX. Gazteen Antzerki Topaketa // XXXII. Muestra de Teatro Joven. Antolatzailea: Udaleko Gazteria, laguntzaileak Donostia Kultura eta Kutxa Kultur.*

## 7.- PROGRAMACIÓN

El número máximo de grupos participantes en esta edición será de **20** grupos, pudiendo actuar más de un grupo el mismo día, pero a diferente hora. La organización se reserva la potestad de ampliar el número de participantes en caso tener disponibilidad de espacios y de días.

Cada grupo manifestará en la solicitud al menos 3 preferencias en cuanto a día, hora y lugar de representación, según el calendario dado por la organización. En el caso de que existan coincidencias, se realizará un sorteo.

Una vez finalizado el plazo de inscripción, 15 de septiembre de 2021, la organización realizará una propuesta de programación con fechas y lugares provisionales de las actuaciones en base a las preferencias de los grupos.

La organización editará un programa y cartel de actuaciones, y realizará difusión en diversos medios de comunicación, en el que constará toda la programación de la XXXII Muestra de Teatro Joven 2021. En caso de que el grupo desee confeccionar un programa o publicidad propio, deberá utilizar el modelo facilitado por la organización o bien, realizar uno propio que contenga la siguiente información en euskera y castellano: *XXXII Muestra de Teatro Joven // XXXII Gazteen Antzerki Topaketa* y Logos del organizador y colaboradores o en su defecto, *XXXII Muestra de Teatro Joven // XXXII Gazteen Antzerki Topaketa. Organiza: Donostia Gazteria del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, con la colaboración de Donostia Kultura y Kutxa Kultur.*

## 8.- ARETOEN ERABILERARAKO IRIZPIDEAK

Taldeek errespetatu egin beharko dituzte areto bakoitzak edo/eta antolakuntzak ezarritako zamalan eta erabilera baldintzetara eta ordutegietara.

Aretoetako arduradunak talde bakoitzeko solaskidearekin harremanetan jarriko dira, emanaldiaren behar teknikoak zehazteko. Aparteko materiala behar izanez gero, antolatzaileak gastu horiek bere gain har ditzakeen ala ez aztertuko du.

## 8.- CRITERIOS DE UTILIZACIÓN DE LOS ESPACIOS ESCÉNICOS

Los grupos deberán ajustarse a los horarios y a las condiciones de carga, descarga y uso que establezca cada espacio y/o la organización.

Los responsables de cada espacio escénico se pondrán en contacto con la persona de referencia de cada grupo para concretar las necesidades técnicas del espectáculo. En el caso de que se necesite disponer de material extra del que no disponga el espacio escénico, será la organización quien decida si puede asumir ese gasto extraordinario o no.

## 9.- MATERIALAREN GARRAIOA

Ahal den heinean, Donostia Gazteriak udal ibilgailuen erabilera erraztuko du, antzezlan bakoitzean behar diren materialak garraiatzeko.

## 9.- TRANSPORTE DE MATERIAL

Desde Donostia Gazteria se facilitará en la medida de lo posible, la utilización de vehículos municipales para poder hacer el transporte de material necesario para cada obra.

Taldeak hautatu ondoren, antolakuntzak talde bakoitzak dituen materialen garraio beharrak aurkezteko epea zabalduko du, taldeek zer behar duten zehatz dezaten. Leku bakoitzeko ordutegia eta udal ibilgailuen erabilgarritasuna kontuan izanik, egutegi bat finkatuko da (bilketa eta banaketaren tokia eta ordua) lekualdaketa bakoitzerako.
Ezinbestekoa izango da taldekide batek, gutxienez, garraioan laguntzea eta materialaren zamalanaz arduratzea.

Una vez seleccionados los grupos, la organización abrirá un plazo para que cada uno de ellos presente sus necesidades de transporte de material. Teniendo en cuenta estas necesidades, así como los horarios de cada espacio y disponibilidad de los vehículos municipales, se marcará un calendario (lugar de recogida, hora de recogida, lugar de entrega, hora de entrega) específico para cada traslado. Será imprescindible que al menos 1 miembro del grupo acompañe al vehículo y que esta persona se encargue de la carga y descarga del material.

**10.- SARREREN KUDEAKETA**

Sarrerak areto bakoitzeko leihatilan jarriko dira salgai, 3 eurotan. Sarreren erreserba egiteko aukera egongo da antolatzaileek emandako telefonora deituta.

Talde parte hartzaileekin adostuta, aretoa gonbidapen bidez betetzeko aukera izango da.

**10.- GESTIÓN DE ENTRADAS**

Las entradas se pondrán a la venta en las taquillas de cada espacio escénico por un precio de 3€. Se podrán hacer reservas de entradas para grupos con anterioridad en un teléfono facilitado por la organización. Será ésta la que gestione la reserva de entradas.

De forma pactada con cada grupo, se podrá completar el aforo de la sala mediante invitaciones.

**11.- EPAIMAHAIA**

Epaimahaia hiru pertsonek osatuko dute, antzerki emanaldi guztietara joango dira, eta sariak nori eman erabakiko dute.

**11.- JURADO**

Se creará un jurado formado por 3 personas, que acudirán a todas las representaciones teatrales y fallarán los premios a entregar.

**12.- SARIAK**

JUNIOR KATEGORIA
Obrarik onena: Bi antzerki emanalditara joateko sarrerak.
Talde artistikorik onena: bi antzerki emanalditara joateko sarrerak.
Taularatzerik onena: bi antzerki emanalditara joateko sarrerak

Sari osagarri moduan, kategoriako irabazle guztiek trebakuntza jasoko dute, profesional talde batek eskainia.

SENIOR KATEGORIA
Obrarik onena: Bi antzerki emanalditara joateko sarrerak .
Talde artistikorik onena: bi antzerki emanalditara joateko sarrerak.
Taularatzerik onena: bi antzerki emanalditara joateko sarrerak.

Sari osagarri moduan, kategoriako irabazle guztiek trebakuntza jasoko dute, profesional talde batek eskainia.

**12.- PREMIOS**

CATEGORÍA JUNIOR
Mejor obra: Entradas para acudir a 2 sesiones teatrales.
Mejor equipo artístico: Entradas para acudir a 2 sesiones teatrales.
Mejor puesta en escena: Entradas para acudir a 2 sesiones teatrales.

Como premio adicional, se ofrecerá una formación específica a todas las personas de los grupos ganadores de esta categoría.

CATEGORÍA SENIOR
Mejor obra: Entradas para acudir a 2 sesiones teatrales.
Mejor equipo artístico: Entradas para acudir a 2 sesiones teatrales.
Mejor puesta en escena: Entradas para acudir a 2 sesiones teatrales.

Como premio adicional, se ofrecerá una formación específica a todas las personas de los grupos ganadores de esta categoría.

Emakumeen parte hartze aktiboa kontuan hartuko da, bai antzezle moduan edo bestelako eginkizunetan. Emakumeen rol estereotipatuak ez izatea, eta horien rola bigarren mailakoa edo aktore nagusiaren lagungarri soil ez egotea egoki baloratuko da.

Se valorará positivamente la participación activa de las mujeres, tanto en el papel de actrices así como en el desempeño de otras funciones. Se tendrá en cuenta el que las mujeres no desempeñen un rol estereotipado, y que el papel de ellas no sea secundario ni de simple acompañante del actor principal.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzera bideratutako proiektuak, Donostiako zein beste udaletako Berdintasun sailetara bideratu ahal izango dira.

Aquellas propuestas que muestren una clara intencionalidad de conseguir una igualdad entre hombres y mujeres, podrán ser derivados al departamento de Igualdad municipal así como a diversos municipios.

Topaketa honetako antzezlanen bat Donostiako Udalak antolaturiko beste ekitaldi baterako egokia balitz, Udalak haren barruan txertatzeko aukera izango luke.

En el caso de que alguna de las propuestas presentadas en esta Muestra sea apropiada e idónea podrá ser incluida dentro de otras actividades organizadas por el Ayuntamiento de San Sebastián.

### 13.- SARI BANAKETA

Sari banaketa ekitaldia antzerki emanaldi guztiak amaitutakoan egingo da. Saria jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da taldekide bat, behintzat, bertan egotea. Aretoan saritutako taldeko ordezkaririk ez balego, taldeak ez luke saririk jasoko eta saria eman gabe utziko litzateke.

### 13.- ENTREGA DE PREMIOS

La entrega de premios se celebrará una vez representadas todas la obras teatrales en una ceremonia preparada para tal fin. Será requisito indispensable acudir a dicho evento para poder recibir alguno de los premios en caso de ser elegidos. Al menos una persona integrante de los grupos ganadores deberá estar en la entrega de premios, en caso contrario dicho grupo se quedará sin recibir el premio y quedará desierto.

### 14.- ANTZEZLANEN GRABAKETA

Antzezlan guztiak grabatuko dira. Pertsonen irudiak, ahal den neurrian, osagarriak baino ez dira izango. XXXII. Gazteen Antzerki Topaketaren amaieran talde bakoitzari DVDaren kopia bat banatuko zaio. Donostia Gazteriak bere artxiborako antzezlan guztien kopia bat gordeko du.

Taldeek ezingo dizkiete grabaketak beste hirugarrengoei eman, grabaketa horretan azaltzen diren pertsona guztien eta lanen egileen baimena jasotzen ez badute behintzat.

Donostia Gazteriak grabaketa horiek irabazi asmorik gabeko helburuetarako erabili ahal izango ditu, eta soilik, ekitaldia bera erakusteko, programatzeko eta zabaltzeko. Zabalpena soilik udal webgunean egingo da.

Eragindako pertsonek irudien tratamenduaren aurka egin ahalko dute, eta horretarako, Donostiako Udalera jo beharko dute, datu pertsonalen babesari dagozkion eskubideak egikaritzeko.

Edonola ere, irudiak ezabatu egingo dira,

### 14.- GRABACIÓN DE LAS OBRAS

Todas las obras serán grabadas. La toma de imágenes de las personas será, en la medida de lo posible, accesoria. Al finalizar la XXXII Muestra de Teatro Joven, se entregará una copia del DVD al grupo correspondiente. Donostia Gazteria guardará para su archivo otra copia de todas las obras.

Los grupos no podrán ceder las grabaciones a terceros, ni proceder a su difusión, salvo que se recaben los consentimientos de todas las personas afectadas.

Estas grabaciones podrán ser utilizadas por Donostia Gazteria con fines no lucrativos y exclusivamente a efectos de exhibición, programación y difusión de la propia actividad. La difusión se limitará a su publicación en la web municipal.

Las personas afectadas podrán oponerse al tratamiento de sus imágenes, debiendo dirigirse al Ayuntamiento de San Sebastián para el ejercicio de sus derechos en materia de protección de datos personales.

En cualquier caso, las imágenes serán eliminadas en su totalidad cuando finalice el fin que justifica su

tratamendua justifikatzen duen arrazoia amaitzen denean.

tratamiento.

## 15.- LAGUNTZA EKONOMIKOA

Topaketa honetan parte hartzen duten taldeei kopuru finkoa emango zaie antzezlan bakoitzeko, muntaketak egiten laguntzeko (beharrezko materialaren alokairua, atrezzoa osatzeko materiala eskuratzeko, jantziak eta osagarriak eskuratzeko, garraio eta desplazamenduetarako, profesionalen kontratazioa ordaintzeko.) Emandako kopuru horren gastua antolakuntzak emandako irizpideen arabera justifikatu beharko da.

Antolakuntzak komunikazio, publizitate, aparteko langile, sari banaketa eta jarduera kudeaketaren inguruan sortutako bestelako gastuak bere gain hartuko ditu.

## 15.- APORTACIÓN ECONÓMICA

Se otorgará una cantidad fija por cada obra presentada, a todos aquellos grupos que participen en esta muestra como ayuda para la realización de sus montajes (alquiler de material, atrezzo, adquisición de vestuario y complementos, gastos de traslados y transporte, contratación de profesionales). Dicho gasto deberá ser justificado siguiendo los criterios que marque la organización.

La organización también asumirá todos los gastos de comunicación y publicidad, contratación de personal extra, entrega de premios, así como otros gastos propios de la gestión de la actividad.

## 16.- EPEAK

XXXII. Gazteen Antzerki Topaketan parte hartu nahi duten taldeek eskaera inprimakia bete beharko dute eta, aparteko artxibo gisa antzezlanaren argazki bat gehituta, 2021eko **irailaren 15a baino** lehen gazteria@donostia.eus posta elektronikora bidalita (kasu guztietan argazkiak antzezlanaren tituluaren izena izan behar du):

Antolakuntza hautatutako taldeekin harremanetan jarriko da, antolaketarekin eta kudeaketarekin loturiko azken xehetasunak zehazteko.

Taldeek antolakuntzak eskatutako dokumentazioa adierazitako epean aurkeztu beharko dute, xehetasunak eta kalitatea zainduz.

## 16.-PLAZOS

Los grupos interesados en participar en la XXXII. Muestra de Teatro Joven, deberán rellenar el formulario de solicitud y adjuntar una foto o imagen representativa de la obra en otro documento aparte, y entregarlo antes del **15 de septiembre de 2021** en la siguiente dirección de correo electrónico gazteria@donostia.eus (en cualquier caso las fotos deberán ir nombradas con el título de la obra).

La organización se pondrá en contacto directo con los grupos seleccionados para ultimar detalles de organización y gestión.

Los grupos deberán presentar dentro del plazo marcado la documentación solicitada por la organización, la cual deberá ser lo más detallada y de calidad posible.

## 17.- BESTELAKOAK

XXXII. Gazteen Antzerki Topaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar. Antolatzaileek beharren arabera, edozein aldaketa egiteko ahalmena dute, baita deialdi honetan jasotzen ez den edozein gairi buruz ere, eta hark hartutako erabakiak onartu beharko dira.

## 17.- VARIOS

La participación en la XXXII Muestra de Teatro Joven supone la aceptación de estas bases. La organización se reserva el derecho de modificar cualquier punto de las presentes bases en función de las necesidades de la Muestra, así como a resolver cualquier aspecto no recogido en esta convocatoria, debiendo ser aceptadas sus decisiones.

Donostian, 2021eko uztailaren 30ean.